

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2021EKO URRIA

Euskal AEko industria-jarduera % 3,6 hazi zen 2021eko urrian


2021eko lehenengo hamar hilabeteetan Industria-produkzioaren indizeak metatutako igoera % 10,9koa izan da

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko urrian, Euskal AEko industria-produkzioa % 3,6 handiagoa izan da 2020ko hil berekoa baino, lan-egutegiko termino homogeneoetan. 2021eko lehenengo hamar hilabeteetako balantzearen amaieran, % 10,9ko igoera izan da industria-jardueran.

Urria aurreko hilarekin, 2021eko irailarekin, alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioa % 1,9 hazi da, urtaro-ondorioak behin zuzendurik.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko urriko indizearen bilakaera, 2020ko urriaren aldean, positiboa izan da industria-sektore handi guztietan, *Bitarteko ondasunetan* izan ezik, zeinetan urte arteko % 2,9ko jaitsiera izan baita. Sektoreretan sartzen dira metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Energia % 22,2 goratu da 2021eko urrian urte arteko terminoetan. Sektoreretan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Kontsumo-ondasunek % 8,4ko gehikuntza izan dute orotara; *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 27,8koa, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 3,7koa.

ondasun iraunkor epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkor*ren sektore handiaren barruko jarduerak.

Orobat, *Ekipo-ondasunak* (non dauden motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea) % 4,5 igo dira.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko Urria

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urr2021 / Urr2020	A(Urr2021) / A(Urr2020)(*)	Urr2021 / Ira2021	Ira2021 / Abu2021
Indize orokorra				
Euskal AE	3,6	10,9	1,9	-1,4
Araba/Álava	-3,2	8,2	4,6	-9,9
Bizkaia	6,7	9,9	2,5	1,4
Gipuzkoa	4,9	13,5	-0,2	1,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	8,4	11,6	0,1	4,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	27,8	36,6	4,0	5,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	3,7	6,3	-1,0	4,3
Ekipo-ondasunak	4,5	12,7	2,1	-2,2
Bitarteko ondasunak	-2,9	12,5	-0,4	-1,1
Energia	22,2	-1,8	13,5	1,0

(*) 2021ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, honako hauek izan dute urte arteko hazkunderik handiena 2021eko urrian: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 18,4ko igoera), *Makineria eta ekipoa* (% 8,5eko igoera) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 2,9ko igoera). Aitzitik, jaitsierarik nabarmenenak *Kautxua eta plastikoak* (% 9,8 behera), *Material eta ekipa elektrikoa* (% 8,4 behera) eta *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (% 2,5eko jaitsiera) sektoreetan gertatu dira.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	2,5
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	18,4
09 - Kautxua eta plastikoak	-9,8
13 - Makineria eta tresneria	8,5
14 - Garraio-materiala	-0,1
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-2,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-8,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	2,9

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Urrian Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian (% 6,7 gora) eta Gipuzkoan (% 4,9ko igoera). Araban, berriz, % 3,2 jaitsi da.

2021eko lehenbiziko hamar hilabeteetako metatuan, Gipuzkoa da hazkunde handiena izan duen lurraldea, 2020ko aldi berarekin alderatuta (% 13,5), gero Bizkaia (% 9,9) eta azkenik Araba (% 8,2).

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, urriko indizea laginaren % **94,23ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62